

Eusko Jaurlaritzak Euskal Letretako Merezimenduzko saria (1990) eman zionean, Santi Onaindiaren nortasunaren alde garrantzitsu bat azpimarratu eta aitortu zuen: euskararen alde egindako lana. Izan ere, haren nortasunaren funtsa ezaugarri bi hauetan datza: alde batetik, elizgizon-fraide izatean, eta bestetik, euskal letretako gizona izatean. Bietan ere lan ugari egindako gizona dugu.

Kontuan izatekoa da zein garaitan bizi izan zen; garai nahasia, eta garai horretan ikusten dugu Santi argi egiten eta euskalgaietan maisu. Haren garaian euskal kulturak eta gizarteak bide oso korapilatsuak izan zituzten: idazle gazte zela (1927-1936), hau da, gerra aurreko garaian euskarak eta euskal gizarteak berpizkundea ezagutu zuten; gerratean eta ondorengo urteetan (1936-1945) euskal kulturako bizitza eta ekintzen hondamendia izan zen; geroko urteetan (1945-1950) hasi ziren euskal gaiak eta argitalpenak, batez ere atzerrian; eta ondorengo hamabi bat urteetan Aita Santi euskal idazle zen aldetik indartsu agertzen da, orduko

euskaltzaleentzat iturri garrantzitsu bihurturik. Pixka bat geroago, ikastolak sortu eta indartu ahala, euskal kulturaren aurrerapena guztiontzat ezaguna izan da. Une horretan ere Aita Santi idazle ugari, jori eta eragile handi ageri zaigu.

1



Santiago Onaindia, 1909-1997.



Nor dugu Aita Santi? Euskal munduan idazlerik emankorrenetakoa, era askotako gaiak darabiltzana, publizista handia... Azpimarratzekoak dira haren ikerketa literarioak; baita literaturan, prosan nahiz olerkian, egindako sortze-lana ere. Baina haren bi jarduera aipatu gabe ezin utzi: Santi Onaindia besteen lanak argitaratzen eta zabaltzen saiatu zen eta itzulpen literario asko argitaratu zituen. Haren lanak askorentzat iturri garrantzitsu bihurtu ziren.

Euskal literaturaren eta literatura orokorraren arloan hainbat euskal idazlerekin izan du harremana, batez ere bi aldizkariren zuzendari izateak —*Karmel* eta *Olerti*—horretarako bide emanik. Hona hemen izen batzuk: Lauaxeta, G. Aresti, Mikel Zarate, Orixe, Gaztelu, Gabirel Manterola, N. Etxaniz, Balendin Enbeita, E. Erkiaga, A. Zubikarai, Bitoriano Gandiaga, J.M.Lekuona...

Eta literatura orokorrari dagokionez, haren jakintza zabala da. Ez dezagun ahaztu 45 bat idazleren lan literarioak, olerkarienak bereziki, itzuli zituela euskarara. Guztien artean hauek aipa genitzake: Homero, Virgilio, Horazio, Dante, Santa Teresa, Teresa Lisieux-koa, E.A. Evtuchenko, Gabriela Mistral, Rabindranath Tagore eta abar.



Amoroto herria. Atxuriarte baserria 1989. Urtean erre egin zen.

Aita Santik zahartzaroan bizitzako oroitzapenak argitaratu zituen *Oroi-txinpartak* liburuan. Kontaketa luze honetan bere bizitzako hainbat argibide eskaintzen dizkigu.



Familia: aita, ama eta neba-arrebak.

## HAURTZAROA

Amorotoko Atxuriarte baserrian jaio zen Aita Santi, 1909.eko martxoaren 24an. Bost neba-arrebaren habia berri gertatu zen baserri hori. Migel Onaindia Barrutia eta Jazinta Baseta Albizuri senar-emazteek bi alaba eta hiru seme izan zituzten. Ez Migel eta ez Jazinta ez ziren hangoak, ezkontzaz hara etorriak baizik. Aita Markinakoa zen eta ama Axpe-Arrazolakoa.

Aitaren itzala, harenganako mirespena txitean-pitean itzuri ohi zaio lumatik, haurtzaroko oroitzapenak barnean eho ahala paperera goxoki isurtzen dituenen. Haurtzaroan baino gehiago mutikotan, hura du eredu, hura gidari.

Hiru mutikoetarik zaharrena izanik, aitak berekin darama batera eta bestera. Kristau-heziera ona eman zietela argi eta garbi dio Santik. Igande gehienetan, bazkalondoan, amak harrikoa egiteari zekion bitartean, aitak etxe aurreko madariondo baten itzalpera seme-alabak eraman eta hantxe irakurri ohi zien Frantzisko Iñazio Lardizabalen *Testamentu Zar eta Berriko kondaira* liburutik kapitulu bat edo bi, gero azalpen gozoak eginez.


Migel feriazalea zen eta hilero, azken larunbatetan, Markinara joaten zen, zer edo zeren salerosketa aiko-maiko eta aitzakiatzat harturik. Santi mutikoa izan ohi zuen, gehienetan, lagun.

Aita ez zuen eskola handikoa, baina esperientziaz asko ikasia bai. Hala ere, Migelek, berak ez zuena, seme-alabek izan zezatela nahi zuen. Santi zuen batez ere bere begikoa, legez honi baitzegokion Atxuriarteko oinordetza. Baserritar eskolatua eta jantzia nahi zuen. Amoroton lehenengo ikasketak eginda gero, beste ikastetxe batera eraman zuen.

Zornotzan dagoen Larreako karmeldarren ikastetxera doa. Ikastetxe horren atarian dei egin zuten abenduaren lauan, eguerdi aldean, aita-semeek. Urteetan Larrean berekin biziko zen Aita Luki orduantxe ikusi zuen lehenengoz; baita, Duralde eta Barrenetxea markinarrak ere. Joan zen aita eta Santi gaztetxoa han geratu zen.

Ikasketetan hasi-masietan zela, irakasleen artean, Anaia Gregorio, Agurain aldeko arabar argia aipatzen digu begirune eta maitasun handiz. Aurpegi ilunik egundo jarri gabe, egonarriz gaztetxoei letrak irakasten saiatzzen zena. Beste irakasle batzuk

ere maiteki gogoratzen ditu, ikastetxeko zuzendari izan zen Aita Roman batez ere, geroago frankotarrek Larreako baratzeko horma ondoan fusilatu zutena.



Larreako ikastetxea 1923. urte inguruan.



Gazte-garaiko argazkia.



## KARMELDAR

Lau urte eta erdiko lehen ikasketak bukatu ondoren, ikastetxearen aurrez aurre zuten karmeldarren nobiziatuan sartu zen, 1926.eko uztailaren 9an. Santik berak idazten digu Larreako komentuko bizimoduari buruz: “Goizean jagi, koruko errezuak, otoitza, mezea, gosaldu, ikasi, jolastu, lokuluska, otoitzaldia ta abar. Zer ikasi? Geure legeak, otoitz-jarduna, au da, karmeldar bizitzan zelan bizi etenbako otoitz-arloan. Labur: azi ta ezi tantaka-tantaka lez, leize-zuloan goitiko tangadak dagiana, jainko-grazi ta doez geure giza izateak bete-bete egin arte”.

Urtebete igaro ondoren, 1927.eko uztailaren 10ean, heldu zitzairen gazte haiei ere profesia-eguna. Elizkizun samurra, hunkipenezkoa.



Larreako komentua gaur egun ikusten den bezala.

Hurrengo ikasturtea (1927-1928) Markinan egin zuen. Euskal idazle gisa Larrean hasitako ildotik hegazkadatxo laburrak baina gogara eginez zihoan. Hemen beste batzuen artean Aita Urbano Mancisidor izan zuen maisu. Euskara irakasten aparta izan behar zuen honek. Gramatikari dagozkion ohiko arloak sakonduz batera, euskalkiak ezagutarazten zizkien, baina betez ere idaztera bultzatzen zituen gazteak. Zoriontsu zen, baina ustekabean eta onen-onenean ezbeharrak: ikastetxe zaharreko lehen ikasketak burutu eta nobiziatuan sartu orduko, azken ibilalditxoak egin zuten hango ikasleek euren irakasleekin. Haien artean zen Bixente Onaindia ere, Santiren anaia, hau baino bi urte gazteagoa. Urkiolara joan ziren eta handik Anbotoko puntara. Han irrist eginik amildegitik behera eroririk galdu zuen bizia. Hura samina!

Ikasketa nagusiei Gasteizen emango zieten hasiera. Hemen Filosofia ikasteko hiru urteak eta Begoñako Karmelon Teologiako lau urteak, apaiz-ikasketak bukatu arte. 1934an egin zen apaiz. Ikasle zela, lehen-lehenengotik ukitu zion barrua euskaltzaletasunak eta bere ikaskideekin batera euskara lantzeari eta euskaraz idazteari ekin zion.

Donostiako *Euskal-Esnalea* aldizkarian datoz hauen lanak, 1925-28 bitartean. Aukerarik ezak eragin ohi du, batzuetan, espiritua erdi lotan, aurrerantz egiteko gogorik gabe izatea. Hori uste du eta halaxe aitortzen digu berak: “Neure leen-  
-maisuari eskerrak, ikas-griñaz sutua geratu nintzan betiko”. Markinan ere irakasle onak eta euskal giro jatorra aurkitu zituen eta haren ametsak egia bihurtuz zihoazen. Filosofia- eta Teologia-ikasle zela lan serioei ekin zien, batez ere, ikaskide eta adiskide zuen Lino Akesolorekin batera. Hauen artean, Avilako Teresaren *On-bidea* (*Camino de Perfección*) itzuli zuten. Era berean, biek elkarlanean burutu zuten Lisieux-ko Teresaren *Arima baten Historia* ere. Baina liburu honen arrastorik ez da gelditu.

Gasteizen aldizkaritxo bat ateratzen zuten ikasleek, euskaraz, gaztelaniaz, latinez... *Renacer* zuen izena. Begoñako Karmelon, Teologia-ikasle zela, asko idatzi zuen Santi Onaindiak, *Karmengo Argia* aldizkarian batez ere. Gazte ameslaria genuen Santi; baina ekinaren ekinez, etsi gabe, ametsak egia bihurtzen zekiena.

Gerra aurreko urte gutxitan olerki eta idazlan labur ugari idatzi eta argitaratu zituen. Santi Onaindia euskal idazle

ona izateko bidean zetorren, baina bat-batean isilarazi zuen gerra zitalak.



Larreako fraidegai-taldea.



Larreako Karmengo ama.

## GERRA ZIBILA ETA ESPETXEA

1936. urteko uztailean Eibarren zen Santi Onaindia eliza-hitzaldiak egiten. Calvo Sotelo tiroz hila izan zen eta gerra-sua berehala piztuko zen zurrumurruak eta hotsak bala-bala zabaltzen ziren, bai jende xehearen artean, bai komunikabideetan. Afrikaren iparraldean hasiko zen altxamendua, Franco jenerala buru zela.

1936.eko Gabon aurretxoan dei egin zion Jose Maria Korta Uribarren jaunak, Euzko Gudarostearen kapilautzaren arduradunak. Bilboko Carlton hotelean, elkarrizketa txiki baten ondoren, berehala onartu zuen hark gudarien kapilau izatea. Kirikiño izeneko batailoian errolatu zuten eta Durangon egin zen bilera batean esan zioten zer egin. Bilera bukatu ondoren, Lauaxetari eta han zeuden beste ezagun batzuei bostekoa luzaturik, Larreara itzuli zen.

Aste hartan bertan, Durangoko Josulagunenean zen, Kirikiño taldeak hantxe ezarri baitzuen bere egoitza. Kanpanzartik Intxortara bitartean, Angiozar gaintxoan egokiturik zegoen Kirikiño taldea. Hor zehar ibiliko zen Santi Onaindia ere. Kandido Sasetaren heriotzak batez ere zirrara bizia eragin ziola diosku. Horrela,

bihotzari hitz egiten utzirik, sentipenez gainezka, olerki bat eskaini zion, gero *Euzkadi*-n argitaratu zena. Hona hemen:

Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!  
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.  
Aizea baizen arin da an-or edatu  
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.(...)

Biotzean min dogu, Saseta maitea,  
biotzean min dogu, begian negarra;  
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra,  
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.(...)

Uso zuri-otzana basoan egazka,  
biotzak samin-eunaz dituzu estali.  
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,  
argi-itzal eziñera aldatua zara.

Duesoko kartzelan sartzean, goitik beherako araketa egin zieten, aldean zuten guztia bertan uztera behartuz. Lau zaintzaile omen zituzten begi-zorrotz. Bi liburu zituen eskuartean; bata, Sabino Aranaren *De su alma y de su pluma*, eta bestea, *Kristo-ren Antz-bidea*, Zornotzako Aita Pio karmeldarrak idatzia.

Epaiaketak etorri ziren gero. Apaiz hauei egozten zizkieten erruak berdintsuak izan ohi ziren: Espainia euren aberritzat ez onartzea; Espainiaren etsaiei, gudariei, laguntzea; Espainiaren kontrako altxamendurako hauen gogo berotzea; euskaraz idaztea... Aita



Santiri hiru galdera egin omen zizkion horretarako izendaturik zegoenak: lehenengoa, “zein daukazu zuk zeure aberritzat, Euzkadi ala Espainia?” bigarrena, “frentean ez al zenuen gure aldera pasatzeko aukerarik izan?” eta hirugarrena, “zuk *Karmengo Argia* aldizkarian idazten zenuen?”

Lehenengoari, asmo txarrez egindako galdera maltzurra zela erantzun zion. Bigarrenari, baietz, aukera ugari izan zituela beste aldera pasatzeko, baina berak gudarien ondoan zuela bere egitekoa, haiei erlijio-zerbitzuak eskaintzen, horretarako izan baitzen izendatua. Hirugarrenari, baietz, ikasle zela idazten zuela, aldizkariaren zuzendaria lan eske joan ohi

zitzaiolako. Gaiztakeria horien guztien ondorioz, 30 urteko kartzela egotzi zioten.

Hiru urtetan zehar kartzelaz kartzela erabili zituzten: Duesotik Langraritzera, hemendik Dueñasera eta azkenez, Carmonara. Gorriak ikusi zituzten. Denbora luze joango zela uste izanik, ikasteari, irakurtzeari eta idazteari eman zieten. Aita Santik hizkuntzak ikasi zituen, batez ere frantsesa, ingelesa eta alemana. Azkenengo hau ikasten taldean aritzen ziren, Besteiro jauna irakasle zela. Liburuak irakurri eta hainbat lan burutu zituen, batez ere euskara lantzeari eta olerkiak idazteari gogotsu ekinez.

INTERNOS EN DUEÑAS CONDUCTOS A CARMONA

1	D. CANDIDO NOGUERAS	6	14	D. RAMÓN ORTIZAR	6	1	37	D. MARIANO EREÑO	6	1	
2	.. FERNANDO MARKIERKIAGA	20	15	FR. SEBASTIÁN ATUÑA	12	4	38	.. JULIAN BESTEIRO	20		
3	FR. LINO AÑEZOLA	16	16	.. D. DANIEL TORONTEGUI	12	1	39	.. ANGEL ALDAMA	6	1	
4	D. GREGORIO FERNANDEZ	20	17	FR. RAFAEL URIONABENI	16		40	FLORENCIO BARRNECHEA	12		
5	.. HONORIO URGOITIA	6	1	22	D. SATURNINO CANCHEGA	20	41	MANUEL LLADOS	20		
6	FR. ANGEL ITURBE	10		24	.. JUAN ZABAETA	6	1	42	CASTOR MARRAÑON	6	1
7	D. FEDERICO ORBEA	6	1	25	.. IGNACIO ARCHABAETA	6	1	43	MANUEL DE ORTIZAR	8	
8	.. JOSE MA DA ROBERTIA	12	1	26	.. EUGENIO LARRAGA	20		44	SANTOS ARANA	20	
9	.. FLORENTINO SACARRAGA	6	1	27	FR. ESTANISLAO AGUIRRE	6	1	45	.. JOSE JAUREGUI	20	1
10	.. JOSE ANTON LOINAZ	12	1	28	D. VICTORIANO LARRAGAN	12	1	46	JUAN JOSE AGUIRRE	12	1
11	FR. SANTIAGO ONANDIA	20		29	.. SINTORIANO TRASPUESTO	20		47	LUIS DE AGUIRRE	30	
12	D. DAMIAN ZELAYA	20		30	.. EZEQUIEL GUISASOLA	6	1	48	FR. NICOLAS BATIZ	16	
13	FR. JOSE DE UGARTECHEA	8		31	.. NAZARLO SARASOLA	12		49	.. PAUTISTA LEGARRA	20	
14	D. FERMIN COTI	20		32	.. JUAN MARQUEGUI	20	1	50	D. AQUILINO AYERDI	12	1
15	.. ROMAN JAUREGUI	20		33	.. JOSE SANCHEZ	8	10	51	.. JUAN ADECOA	20	
16	.. ENRIQUE ARRIAGA	16		34	FEDERICO ZORROZUA	12	1	52	.. MODESTO ARANA	20	
17	FR. LUCIO AGUIRRE	8		35	.. SANTIAGO YLLANUEVA	6	1	53	.. VICENTE SAINZ	20	
18	D. JULIO UGARTE	12	1	36	.. BERNABE ACHA	6	1	54	.. CESMAN DE MICHELENA	12	1



Carmona-ko kartzelan gerra ondoren.



## ELIZGIZON ETA FRAIDE: LARREAN

1940.eko uztailean eman zioten Aita Santiri askatasuna, baina Euskal Herriko komentuetara etortzerik ez zuen eta Kantabriako Hoz de Anero-ko auzunean den Rigadara bidali zuten. Aita Santirekin ziren komentu hartan, Carmonako kartzelatik irtenda, Aita Errapel Urionaguena Bolibarko semea eta Lino Akesolo ere.

Geroxeago, 1942.ean, Gasteizera bidali zuten eta ustekabean, Portugalgo Viana do Castelo-ra joateko gauzak prestatzeko agindu zion probintzialak. Aita Santik, baina, bazekien ongi, kartzelan egondakoak katea laburrez eta hurbil eduki nahi zituela Espainiako gobernuak. Orduan Logroñora bidali zuen nagusiak...

Hemen sei urtez bizi izan zen. Pozik bera eta poz-pozik errioxarrak ere, Santi oso langilea eta lagunartekoa baitzen. Hitzun ona eta pertsona atsegina.

Hemendik Hoz de Anero-ra joan zen, espetxetik irten berri bizi izan zen eremu-etxe horretara; baina oraingoan bertako nagusi.

Hurrengo, Larreako nagusi egin zuten. Gero Eibarko nagusiaren ordezkotza izan zen hiru urteko beste tarte bat dago. Harrezkeroko guztian Larrean bizi izan zen 46 bat urtez. Zoriontsu, lan eta lan, erle langileak bezala, euskararen lore-niniketan xurgatzen duenaz ezti gozoa egiten. Bihotza eta burua eder-jario oparoan. Euskara zaharra era guztietako osagai aberatsez, jantzi apainaz hornitzen.



Aita Luki

# 10

Eibarren igarotako hiru urteen ondoren, bi aldiz izango da oraindik nagusi Larrean. Aurretik ere izana zen eta 1957ko abuztuan jaso zuen berriro Larreako nagusi izateko izendapena. Poz-pozik zegoen Eibarren eta pozez zorutzen etorri zen Larreara. Larrea, izan ere, bere etxea bezain maitea zuen. Hirugarrenez ere izan zen hango nagusi, baina ez jarraian, urte batzuk geroago baizik. Larrea bertako elizan eta Bizkaiko eliza eta ermitetan apostolutza-lanari emana bizi izan zen, han eta hemen eliza-hitzaldi ugari eginez. Euskal idazle zen aldetik, gai literarioak eta erlijiosoak erabiltzen zituen. Hauen artean *Goi-Zale* izeneko liburutxoak argitaratu zuen Eibarren bizi zela.



1962. urtean, Larreako fraidegaiak bertoko fraide-komunitatearekin. Bigarren lerroan, ezkerretik hirugarrena, Santi Onaindia.



Larreko klostroa eta eliza.

Eusko Jaurlaritzak Aita Santiri 1990ean Euskal Letretako Merezimenduzko saria ematean, hura euskal idazle bikaina izan dela aitortzen du.



Argazkirik ezagunena.



1992. urteko Korrikan. Zornotzan hartu zuen lekukoa.

## ARGITARAZLE, DIBULGATZAILE ETA ERAGILE

Santik giza eta politika-giro berezi batean lan egin beharra izan du. Eta garai hartan idazle aproposa gertatu da. Idazle emankorra inor bada; estilo arinekoa, euskara ona eta jatorra erabiltzen maisu. Hogeitabat mila orrialde idatzi eta argitaratu zituen. Liburuak asko (55 bat), idazlanak ia ezin konta ahala 25 aldizkaritan. Eta hitzaldiak ere ugari, gehienetan gai nagusitzat euskal literatura zuela.

Argitaratutako liburuen artean, batzuk bere-bereak ditu: *Gure bertsolariak* (1964), *Larrea eta karmeldarrak* (1968), *Goiznabar* (1971), *Euskal Literatura* (1971...), *Euskal Elertia* (1978), *Lamiñak orrazi-eskean* (1978), *Santa Teresa Eliz-Irakasle* (1981), *Arana-Goiri'tar Sabin olerkari* (1982), *Euskaldunak eta osasuna* (1984), *Nere baserria* (1985), *Gernika* (1987), *Oroi-txinpartak* (1988), *Bizkaiko Olerkariak* (1990) eta beste.

Besteen lanak argitaratzen ere lan handia egin du. Hauen artean batez ere bere lehenengo lan handia da aipagarriena: *Milla euskal-olerki eder* (1954); baina baditu beste asko ere, esaterako, Arrese-Beitiaren *Olerkiak*

# 12

(1956), Txomin Agirreren *Ondarrak* (1964), *Jolasketa* (1965), E. Buztintzaren *Abarrak* (1966, 1980), R.M.Azkueren *Ipuiñak* (1968), Lauaxetaren *Olerkiak* (1974, 1980, 1985), J.A. Agirre-Lekuberen *Azkatasunaren yarra* (1978), Balendiñe Albizuren *Olerkiak* (1984), T. Elorrietaren *Mendatako profeta* (1986) eta abar.

Hark egindako itzulpen-lana ere ez da nolana hikoia, gero ikusiko dugunez.

Idazle gazteei euskal kultura eta euskara lantzeko gogoia berotzen aparta genuen. Izen handiko idazleak

bere ingurura biltzen eta erakartzen jakin zuen. Idazle asko ikusten ditugu berarekin harremanetan, atarian aipatu dugun bezala.

Hark erabilitako gaiak ia arlo guztietakoak dira: erlijio, literatura, gizarte eta zientzietakoak; hizkuntza eta kultura guztiz ezberdinetara hurbildu izan da, batez ere itzulpenen bidez. Kultura klasikoa izan daiteke horretan aipagarriena. Bere lanetan zehaztasunari baino areago euskara eta euskal kultura zabaltzeari begiratu zion; literatura unibertsaleko obrak euskaraz eskaintzeari.



Maulen 1977. urtean, Lino Akesolo eta Piarres Lafitterekin.



## ALDIZKARIEN SORTZAILE ETA SUSTATZAILE: KARMEL ETA OLERTI

Aita Onaindia aldizkari askotako idazle izan da, ehundaka artikulu argitaratuz. Baina bereziki *Karmel*-en bihotz eta buru izan dugu. Gerrak ito zuen *Karmengo Argia*. Gerra eta kartzelako garaien ondoren Santik berpiztu zuen aldizkaria berriro, lehenengo *Karmengo Amaren Egutegia* izenez (1951-1956) eta gero *Karmel* izenez (1957-1961). Gobernuak isilarazi zuen aldizkaria, orduan, aldizkariaren ordean, Santik liburuak argitaratu eta bidaltzen zizkien harpidedunei. 1968an ekin zion berriro Aita Santik *Karmel* ateratzeari eta aldizkari honek osasuntsu eta indar berriz jarraitzen du gaur arte.

Larrean *Karmel* aldizkariaren zuzendari zela, jendea euskaltzaletuz zihoan —hala dio berak—, gazteak batez ere. Askok jo ohi zuten harengana bertso bila, esaterako, andereñoek eta



*Karmel* aldizkariak artikulu luzea eskaini zion 1996ko alean Luis Baraiazarrek idatzirik: "Santi Onaindia, euskal letrei emana".

eskoletako neskato-mutikoeak. Ezin ezer gabe utzi eta bere bilduma bikainetik egokiena zeritzona hautatu, ukitutxoak edo behar ziren orrazketak egin eta zertxobait beti eskaintzen zien eta haiek pozik unean uneko gogo eta premiei erantzuteko. Baina gero, hainbesteko olerki eta bertso-bilduma egin ondoren, hoberik eskaintzea ere bazuela eman zion senak, eta liburuxka xume bat argitaratu zuen *Karmel* aldizkariaren ardurapean: *Bertso berri eta Kanta zahar* (1960).


*Karmel* aldizkariarekin ari zela, Aita Santi olerki-aldizkari baten premiaz jabetu zen. Horrela, olerkari eta bertsolari askori idatzi zien asmo hauek azalduz. Gehienek erantzun zioten, "txaloka ta zorionka" erantzun ere; hauek izan ziren erantzun ziotenetako batzuk: Gotzon Egaña, Joan Mari Lekuona, Luis Mari Muxika, Joan Angel Etxebarria, Jon Garmendia, Gabirel Manterola, K. Jauregi, G. Aresti, Antonio Valverde, A. Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Deunoro Sardui, Jose Agerre eta abar.

Aita Santik berak azaltzen du gaia: "Olerki utsa, naiz neurtua, naiz itz lauz. Ona batean: 1) Olerkiak, bai jatorrak, bai alboko izkuntzetatik biurtuak; 2) itzulpenak, itz lauz,

poema, balada, epopei ta abar; 3) gure olerkari nai bertsolarien bizitz-  
-xeetasunak; bai ta onein olerki-  
-azterketa edo kritika be”.

Itxaropenez eta pozez onartua izan zen *Olerti* aldizkariak historia luzea izan zuen, eta bera izan dugu osotasunean, kalitatez eta kantitatez gorengoa; izan ere, olerki arloan, euskal literaturaren gailurrean izan dugu. 1.950 olerki eta bertso-lan inguru ditugu aldizkarian barrena.

*Olerti*-n 350 bat olerkariren lanak agertu izan dira, euskaldunenak eta beste hizkuntzetakoenak, gehienak klasiko ospetsuenak. Joan Mari Lekuonak erantzun-gutunean zioena, egia bilakatu zen: “aldizkari onek laguntza ederra eman dezaioke euskal literaturari”; baita G. Arestik zioena ere: “Orain arte ez dot berorren bearra begi onakaz ikusi; baiña asmo au kontsideratu ezkeru, biotzetikan deadar azkar batek urtetan deust: Biba Aita Onaindia! Bai, ondo ikusten dot berorren asmo eta ene laguntasunik aundiena eta iraunkorrena eskinduten deustat, amai on eta zoriontsu batera eroateko”.



*Olerti* aldizkariaren lehenengo alea.



*Karmel* aldizkarian *Olerti*-n argitaratutako olerki eta bertso-lan guztien bibliografia eskaini zen 1993. urteko lehenengo alean.

## OLERKARI ETA OLERKIAREN ERAGILE

Aita Santiren nortasuna olerkiaren munduarekin loturik dago: bera olerkari dugu, olerkarien bultzatzaile, olerki-aldizkari baten sortzaile, olerkia eta bertsoa bihotz-bihotzean zeramatzan.

Aita Santiren lehenengo lan handia —1.199 orrialdekoa— euskal olerkiaz izan da, belaunaldi batzuentzat iturri garrantzitsu bilakatu izan den *Milla Euskal-Olerki Eder* (1954) liburu mardula, hain zuzen.

Hau dugu, zalantzarik gabe, euskararen historian arrakastarik handienetarikoa jaso izan duen liburua. Gerra ondoko gau ilun itogarrien ondoren, egunsenti itxaropentsu gisa agertua. Mundu zabalerantz agertu zen euskaldun olerkariak mendi-gailurretik egindako irrintzi luzea: euskal olerkia bazegoen; arnasa luzez eta biziz jantzia, egon ere.

Aita Santik bere bizitza osoan egin eta argitaratu zituen olerkiak; 1929an, hogeitazero urte zituela, hasi eta zahartzaroa arte. Haren *Olerki guztien bilduma* ere argitaratua izan zen 1989an. Han agertzen dira Joan Mari Lekuonaren hitz hauek:

“Liburu honetan plazaratzen dira olerki guztiak. (...) Gogoeta asko du olerkiaz eta olerkariak eginik. Teorizazio alderdi hau poesi aldizkarien sustapenerako garatzen badigu ere, ezin ukatuzkoa dugu, Aita Santik denontzat landuriko ikerketa estetikoak, baduela zerikusi Onaindiaren poetika pertsonalarekin. Ikuspegi klasikoa eta idealdia dakar, baina, aldi berean, XX. mendeko poesigintzarekin lotua, post-sinbolisten hariko ekarria duelarik jakingarriena geure iduriko.”

15



Karmel aldizkariako idazleen batzarra eta azkenengo hiru zuzendariak.





“Bi koordinadetan sorturiko lana du: gerraurrekoan eta gerrondokoan. Eta bi metrika alderdi: errezitatzeko gehiago bata, kantatzekoa bestea; ahapaldiz anitzagoa bata, durrundariago bestea; errimaz urriago bata, ugariagoa bestea; diskurtsoz esentzialago bata, erretorikoago bestea. (...)”

“Bikoitza, gainera, iruditeriaz ere: modernoa bata, alegorizazioz landua, izadia pertsonalduz analogizatua eta metaforagintzaz berria; bestea, berriz, tradizio esparruko ohituran erabilia, klasikotasunean eraikia, post-erromantizismoko sentiberatasunez hornitua.”

Aita Santik olerki-mugimendu bat sortu zuen, batez ere *Olerki* aldizkariaren bidez, eta mugimendu horren euskarri eta eragile izan zen;

urteetan zehar Olerki-egunak antolatzen zituen, gazte asko olerkigintzara bultzatuz: “Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osagarri eta aberasgarri diren poemak sortzera edota itzultzera, eta, belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez”.

Aita Santik ez ditu olerkiak egin eta argitaratu bakarrik; beste olerkari batzuen olerki-liburuak argitaratzen ere saiatu da, gehienetan sarrera batekin, adibidez F. Arrese Beitiarenak (1956), S. Muniategirenak (1970), Lauaxetarenak (1974, 1980, 1985), Arana-Goirirenak (1982), Balendiñe Albizurenak (1984), Danterenak (1985), Homerorenak (1986), Goetherenak (1986) eta abar.





Ahozko literatura eta bertsoaritzan bete-betean sartzekoak dira, jakina! *Gure Bertsolariak* eta *Enbeita Oleskaria* liburuak. *Milla Euskal-Olerki Eder* liburuan ere olerki-lanen ondoan bertso-lanak datoz. Eta *Oleri* aldizkarian ere gauza bera egin ohi du. Santi Onaindiak bertsoak, bertso onak, sekula ere ez ditu baztertzen. Olerkien ondoan, haiei ere lekutxo bat egiteko joera agertu izan du beti. Ahozko literaturarekin zerikusia duten bi liburu ezin aipatu gabe utzi: *Jolasketa* eta *Laminak*. Irakurlearen gozagarri diren liburu interesgarriak. Bata mardula eta bestea txikia, baina biak zein baino zein atseginagoak.

*Milla Euskal-Olerki Eder* izan zen ondorengo lan askoren enbor nagusi. Horrela, esaterako, *Gure Bertsolariak* liburua ere haren orpotik ernatutako altxumea da. Behin, egilearekin hizketan nintzela, hauxe esan zidan: “Ordurako nik *Milla Euskal-Olerki Eder* eginda neukan, eta gai ugari eta aukerakoa izanik, bertsoaritzaz zerbait egin neinkeala emon eustan senak eta lanari ekinik, apurka-apurka, konturatu orduko amaitu neban”. Aita Santik hiruzpalau lerrotan ematen digu obra horren gunea:

Euskaldunen bertsoaritzza doai gotorra dozu, gure aozko literaturaren

ezaugarri nabarmenena, ez bakarrik azken urteotara arte eskola aundi bako erriaren poesi-kutsuz jarioka daukagulako, baita erri-biotzaren eragin samurrak eta ikutu gozo atseginenak bertsoz iraultzen trebe dalako be. Or gure bertsoaritzza egi-egiazkoa.



Ekitaldi ezberdinetan beste euskal idazle batzuen artean.




Lau zatitan eratuta dago liburua: lehen zatian, munduko hainbat aldetan izan diren bertsolariak aipatzen dizkigu; bigarrenean, euskal bertsolaritza jorratzen du; hirugarrenean, bertso-motak; laugarrenean, gure bertsolariak —historia txiki bat eginez—. Lehen zatikoak, antzina zaharreen, denboraren tolestura ilunetan erdi galdurik dagoelako, jakin-min handiagoa sortu ohi du. Aipa ditzagun, beraz, zati horren atalak: bertso-esaleak, bertso-egileak, bertsolarien ibilerak, bertsolariak literaturan —Egipto, Txina, Japonia, India—, juduen artean —Biblian—, Grezian —aedoak eta rapsodak—, keltarren artean —bardoak—, germaniarren artean —eskaldak—, Frantziako elezaharren kantariak, Proventzako trobadoreak, euskal kanta zaharrak —erromantzeak, baladak, maite-leloak, irri-kantak, ardo-kantak, jainkozko kantak, pastoralak...

Azken aipamen laburra Urretxindorrari buruzko lanaz egin nahi genuke. Bi argitarapen ezagutzen ditugu Muxikako bertsolari handiaz: bata, Zarauzko Itxaropenaren *Kuliska Sorta*-n, 1966.ean argitaratua *Enbeita Oleskaria* izenburuz; bestea, berriz, Buenos Airesko *Ekin* argitaletxeak 1971.ean argitaratua,

*Enbeita´tar Kepa, Gure Urretxindorra* izenburuz. “Enbeitaren bertsoak goiko argiaz eta bihotzeko suaz eginak dira”, esaten zuen Aita Santik.



*Euzkadi* egunkarian 1935. eta 1936. urteetan argitaratutako olerkiak.



## PROSALARI

Aita Santiren lan gehienak hitz lauz idatziak dira: liburu asko eta ehundaka artikulua utzi dizkigu. Benetako maisu agertu zaigu lan hauetan. Hiru genero nagusitan sailkatzekoak dira lanok: estudioak, batez ere euskal literaturaz; prosa literarioa, kontalari bikainaren estiloa agertuz; eta azkenez, idazlan autobiografikoak.

Literaturaz artikulua asko idatzi badu ere, bere lan nagusia sei liburukitan argitaratutako *Euskal literatura* da (1972-1990). Beste idazle adituena artean —Mixelena, Villasante, Auñamendiko liburuki handiak...—, berak ere arnasa luzeko euskal literaturako azterketa zabala egin zuen, eta guztien artean bera izan da lehenengoa hain lan luzea euskaraz eskaintzen.

Baina Aita Santik, kontalari gisa, bere prosa jatorra bikainen agertzen duen argitalpena *Lamiñak* liburua izango da, agian. Esan genezake hementxe ageri zaigula Santi Onaindia bere-beretik sortzen eta prosa literarioa egiten. Haren idazkera aberatsa da, joria, iturri oparoari berez-berez dariona. Batzuetan apaindura ugariz hornitzen du bere kontaketa-haria; barrokoaren loratze



eta dotoretasuna dakarzkigu gogora.

Gaiari dagokionez, ahozko tradizioetik jasotako irudiak darabiltza, ipuin miresgarrien aire gozoan irakurlea sarrarazten duelarik. Ezagun da txikitatik barneratua zuela ipuinen giro berezi

hori. Beteta duen barnealdetik isurika dagoen emari benetakoa dirudi.


1988an 472 orrialdeko *Oroi-txinpartak* liburua argitaratu zuen Aita Santik, bere autobiografia. Liburuaren “Atariko agurra”-n L. Arostegik Santiren liburu honi buruz eta haren euskal lan guztiari buruz dioena jasoko dugu hemen geure erara:

Giza bizitza baten emaitza, gain-gainetik begiratuta ikus daitekeena. (...) Gure mendeko aldaketa handien margo fresko zabalak hartzen dituen bizitza. Horra hor, honezkero historia bihurtu





diren gertaera asko: politika, erlijio, euskal kultura, gizarte-giro, eguneroko bizitza. Liburu honen orrietan geratzen da historia zati hori bizirik bezala ispilaturik.



eta Onaindia erromantiko eta idealista ez izan; baina gertaeren bizipozaren ezia eta indarra daki xurgatzen.

Baikortasun honi esker bizinahia eta lanerako adorea somatzen dituzu haren idazkietan. Bere literaturaren historian eta gainerako idazkietan idazleak beti uzten ditu ongi: alderdi onak ikustera jotzen du eta idazteko garra suspertzera.

Gerra aurreko pizkunde garaian hezi zuen bere estiloa, eta gero ildo horretan, baina bere hartan gelditu gabe, gorpuztu eta gurendu izan du. Euskalki guztietatik hartzen du unean egoki eta gogoko zaiona, hautatzen astirik galdu gabe.




Ohorezko euskaltzain.

Euskal historiaren zati baten lekuko, baina ez joandakoaren mende. Biziz, irudituz, hausnartuz eratu duen bizitza-mundua bere-berea du eta maitasunez gogoratzen digu. Baina baikortasun berberaz begiratzen du etorkizunerantz. Begirada horrek, argia bailitzan, poesia alaiz jantzen ditu euskal bizitza eta mundua, nahiz



Ez du irizpide gogorrik. Landa zabalak, ikuspegi argitsuak ditu bereak. Bizkaiko haritza, Euskal Herri guztiko haizeak, bero-hotzak eta onurak maite dituena. Euskara batua eratzeko ere bide aukerakoa. Haren idazkiak, aberats, jario oneko eta bizkorrak, gerora iturri izango dira, suntsituz doan euskal mundu baten lekuko ordainezinak. Ez da guztiz suntsituko, ordea, berezko legez bizi-aldatu baizik, euskal senak honelako emaitzak onartuko baititu etorkizunean.

21



## ITZULTZAILE


Aita Santiren beste alderdi garrantsitsua itzultzailearena da. Haren itzulpenak askotarikoak dira, baina batez ere literaturakoak. 44 autoreren lanak itzuli ditu, batzuenak zati handiak, besteenak zati txikiak..., eta gehienak olerkarienak.

Santik zortzi autore klasikoren liburuak itzuli eta argitaratu ditu, zortziok kultura eta hizkuntza ezberdinetakoak: gaztelarazko klasikoen artean Santa Teresa Avilakoa (*On-Bidea*, 1963; *Egoitzak*, 1981 eta *Bizitzea*, 1989) eta Pio Baroja (*Ipuiñak*, 1987); latinezkoak ditugu Virgilio (*Idazlanak osorik*, 1966) eta Horazio (*Odak eta epodoak*, 1992); grekotik Homero (*Odisea*, 1985); italieratik Dante (*Jainko-Antzerkia*, 1985); alemanieratik J.W. Göthe (*Faust*, 1986) eta frantsesetik Santa Teresa Lisieuxkoa (*Arima baten istoria*, 1991).

Itzulpenezko beste lan laburragoen artean, bereziki olerkarien artean, ondorengo hauek aipa genitzake, besteak beste: Rabindranath Tagore (27 olerki), Gabriela Mistral (14 olerki), E.A. Evtuchenko (10 olerki), Joana Ibarbourou (8 olerki) eta abar. Baina bestelako itzulpen asko ere egin zituen: liturgiakoak, eskolakoak

(ikastoletarako testuak) eta beste batzuk ere bai.

Itzulpenetan darabilen estiloaz zer esan? Orain arte ikusitakoa gogoan izanik, Santi Onaindiak, idazle den aldetik, nortasun sendo eta askotarikoa du: olerkari, prosalari, itzultzaile... zer ez? Gerra ondoren, euskararen egoera latza ezagutu zuen eta harekiko maiteminez, aukera egin behar eta, altxor baliotsu bakanak soilik biltzera barik, era askotakoak eta ugari biltzera egin zuen. Hori dela eta, itzulpenetan batez ere, testu originalari leial-leial izateko araua ez zuela beti ongi bete egotzi diote. Erraztasun handia batzuetan kalterako izan liteke... Eskuz egindako zirriborrorik gabe, zuzenki makinaz idazteko ohitura zuen. Hala ere, estilo dotoreari beti eutsi ohi zion. Olerkaria zen, hitzaren maisua, eta hori edozein motatako idazkietan nabari zitzaion.



23

Itzulpen-lanak.







Brontzezko irudia Larrean bedeinkatu zuten egunean (1996).



Argazia Larreako baratzean.